


SAN JUAN ELIZA





SAN JOAN ELIZA

San Joan (XV-XVI. mendeak), eliza gotorlekua da, gotiko estilokoa, eta kanpoalde sendoan igartzen zaio hori. Paisaiaren jabe sentiaraziko gaitu elizak gordetzen duen harresiaren errondako pasabidetik so egiteak. Aizkorri zein Aratz mendia dakusagularik itzulia emango dugu eraikina inguratzen duen defentsarako helburua zeukan pasabidean zehar. Hiribildu osoa defenda zitekeen horren bidez.

Arkupea barrokoa da, eta deigarria da Loiolako Santutegiarekin zenbaterainoko antza daukan. Diseinua Ignazio de Ibero y Erkiziaren lana baita, Azpeitian Loiolako santutegiaren eta eskolaren lanak zuzendu zituen. Egite materiala, aldiz, Juan de Iduia aguraindarrarena izan zen. Atariak izar gangaz estalitako oinplano pentagonala du. Multzo osoak elizarako sarbidea estaltzen du, ojiba arkuz errematatutako bao soil baten bidez.

Kanpandorrearen errematea ere barrokoa eta jatorrizkoa ordezkatzeko eraiki zuten, aurrekoa sutean suntsitu baitzen. Barnealdean hiru nabeko oinplano angeluzuzena eta girola zuzena ditu. Erretaula Mateo Zabalak burutu zuen 1660.ean. Pinturek Flandriako eragina dute (Rubens) eta Pedro de Obrelenak dira.

Bestalde, San Joan plazan lautadako eraikin zibilen eredu adierazgarriena dugu: Olbeak. Zutabeen bidez sortzen diren arkupeak dira Olbeak (ohol-beheak). Aterpe hauen helburua jendea eguraldi txarretik babestea zen. Horrez gain, bi erabilera izan zituzten: merkatuak eta zenbait bilera hartzea. Olbea hauen altuera udaleko ordenantza baten bidez zehaztuta dago: gizon bat zaldi gainean pasatzeko adina altuera izan behar dute

